



2006 ko
ekainaren
11ean,
Igeldon,

Eskola
txikien 19.
festa
ospatuko da



AGURRA

"Eskola txikiak bizirik herri txikiak bizirik" leloak oso ongi laburbiltzen du igeldotarren nahia.

Alde batetik, herriaren izaera ofizialdu nahi dugu, hau da, Gipuzkoako 89. udala izan nahi dugu, igeldotar gehienek erreferendumean erabaki genuen moduan; eta beste aldetik, herri bizia izaten jarraitu nahi dugulako, herrian geure eskola behar dugu, eskola baita geurea bezalako herri txikien arima.

Beraz, Eskola txikien jaiari Igeldora inguratzen zaretenean gogoan hartu une hauetan igeldotarrek bi erronka nagusi ditugula: herri izaera eskuratzea eta geure eskolaren alde lana egitea.



**BAGINEN, BAGARA
LORTUKO DUGU !**

EGITARAUA



- 10:00 HARRERA
INSTITUZIONALA
(abesbatzak)
- 10:30- ESKOLA
13:00 TXIKIETAKO
HAURREN ARTEKO
JOKOAK
- 13:00 LEKUKO ZUBIETA-
AGINARI.
OMENALDIA.
Haurren dantza eta
Literatur
lehiaketako sarien
banaketa
- 13:30 TRIKIPOTEOA
- 14:30 BAZKARIA
- 16:30 PIRRITX ETA
PORROTX PAILAZO
TALDEA
BURUHANDIAK ETA
ERRALDOIAK
ZEZEN-SUZKOA
- 18:00 TRIKI TA KE
TALDEAREKIN
ERROMERIA

JOKOAK

Jokoak antolatu ahal izateko, herri guztien artean **4 talde** osatu ditugu , jolasak irauten duten bitartean, **beti elkarrekin** mantenduko liratekeenak:

<i>GORRIA</i>	<i>URDINA</i>	<i>HORIA</i>	<i>BERDEA</i>
Alkiza	Andatza	Aginaga	Aizarna
Zerain	Olaberría	Zubieta	Albiztur
Oikia	Ereñozu	Angiozar	Arroa
Aizarnazabal	Abaltzisketa	Aduna	Errezil
Bidegoian	Igeldo	Gabiria	Altzo
Zizurkil	Ikaztegieta	Berrobi	Berastegi
Lizartza	Elgeta	Aia	Lemoiz

Talde bakoitzean 252 haur inguru daude eta jolasak egiteko, **txikien eta handien multzoak bereiztu ditugu** . Txikiak, HH2tik LH1 arte eta handiak, LH2tik LH6 arte. Haur bakoitzarentzat pegatina bat prestatuko dugu zein herrikoa eta zein taldekoa den adieraziz.

Jolasak egiteko lau gune egongo dira: frontoia + 3 karpa.

1. gunean, lokotxen eta txingen jokoak;
2. gunean, plastilina eta graffitiak;
3. gunean, ur pistolak eta
4. gunean, globoen jolasak.

Gune bakoitzean 25 minutu egongo ginateke eta, **gune guztietatik** pasatuko ginateke, talde guztia elkarrekin errotazioa eginez.

BAZKARIA

Frontoian egingo den bazkarirako lekurik ez dago.

Tabernak

- Mendizorrotz jatetxea. Herrian bertan dago. 943212023
- Txistu jatetxea. Herrian bertan dago. 943212979
- Buenavista jatetxea. Herritik kilometro erdira dago. 943210600
- Txalin jatetxea. Herritik 300 metroetara dago. 943214969
- Iturrieta Berri jatetxea. Herritik 300 metroetara dago. 943218864
- Nicolas jatetxea. Autoz joan behar da. 943217151
- Perus jatetxea. Autoz joan behar da. 943211591
- Akelarre jatetxea.

Beste aukera batzuk:

- Antolaketakoek kultur etxean jarriko dugun taberna nagusian bokatak emango dira.
- Euskal labekoek txahal bat oparitu digute erretzeko eta pintxoak salgai egongo dira.